



BEASAINDIK

ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016

Barrendain, elkartzeko eta bizikidetzarako espazioa

Barrendain se renovará en 2026: 5.500 m² de superficie y una inversión de 1,5 millones de euros



Fundiciones del Estanda
labeen hondar-beroa
Antzizar kiroldegiko
energiaren zerbitzura

—
04-05



Euskararen balioa mundura
eramanez, Beasain hizkuntza
gutxituen babesle

—
07



★
Zuen
alkatea

Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Egitasmo berritzaileak pertsonek zerbitzura

Beasainen etengabe egiten dugu aurrera gure herria hobetzeko, **pertsonek ongizatea eta ingurumenarekiko errespetua** gidari hartuta. Etorkizuneko Beasain **jasangarriagoa, osasuntsuagoa eta hurbilagoa** izan dadin ari gara lanean, egitasmo zehatz eta eraldatzaileen bidez.

Horren adibide dira azken hilabeteotan garatu ditugun bi proiektu nagusiak. Batetik, **District Heating** sistema berritzaileak **Estanda enpresako hondar-beroa** aprobetxatzen du Antzizar kiroldegia berotzeko. Horrela, **energia aurrezte eta CO₂ emisioak murrizte** lortzen da, **jasangarritasun energetikoaren** aldeko urrats sendo gisa. Bestetik, **Barrendain plazaren berrurbanizazioak, nahi ez**

den bakardadea arintzea eta gizarte-harremanak indartzea ditu helburu, **ongizate integrala eta belaunaldien arteko elkarbizitza** sustatuz. Herritarren parte-hartzearekin eta erakundeen arteko lankidetzan diseinatutako proiektua da. Egitasmo hauek agerian uzten dute Beasainen **etorkizuna elkarlanean eraikitzen** ari garela. Alde batetik, **herritarrek aktiboki parte hartzen** dutelako gure proiektuetan eta erabaki publikoetan; eta bestetik, **erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetz**a sendoari esker, **District Heating bezalako maila handiko proiektu berritzaileak** gauzatu direlako.

Guztion artean ari gara **etorkizuneko Beasain** marrazten: pertsonak, ingurunea eta komunitatea erdigunean dituen herria.

Proyectos innovadores al servicio de las personas

En Beasain seguimos avanzando con un compromiso claro: mejorar el bienestar de las personas y proteger nuestro entorno. Queremos un Beasain más sostenible, saludable y cercano, y lo hacemos realidad a través de proyectos transformadores. Ejemplo de ello son dos iniciativas recientes. Por un lado, el sistema innovador District Heating, que aprovecha el calor residual de la empresa Estanda para calentar el polideportivo Antzizar, permite ahorrar energía y reducir emisiones de CO₂, dando un paso firme hacia la sostenibilidad energética. Por otro, la renovación de la plaza Barrendain, enmarcada en el proyecto Kale Lagun, busca favorecer las

relaciones sociales y aliviar la soledad no deseada, promoviendo el bienestar integral y la convivencia entre generaciones. Estos proyectos reflejan cómo en Beasain construimos el futuro de forma colaborativa: con la participación activa de la ciudadanía en el diseño y desarrollo de las iniciativas, y con la colaboración entre instituciones públicas y privadas, que hace posible poner en marcha proyectos innovadores de gran nivel como el District Heating. Entre todos y todas, seguimos construyendo el Beasain del futuro: un municipio que sitúa a las personas, al entorno y a la comunidad en el centro.



Barrendain, primera plaza europea diseñada para mitigar la soledad no deseada

Las obras del proyecto, impulsado por el Ayuntamiento de Beasain, la Diputación de Gipuzkoa, Adinberri y la UPV/EHU dentro del programa Kale Lagun, comenzarán en enero de 2026.

La nueva plaza Barrendain transformará el centro de Beasain en un espacio de bienestar, convivencia y conexión social. Se trata de una iniciativa pionera en Europa, concebida para prevenir y reducir la soledad no deseada. Con una superficie de 5.500 m², las obras durarán seis meses y contarán con un presupuesto de 1,56 millones de euros.

El proyecto ha sido desarrollado de forma colaborativa por el Ayuntamiento de Beasain, la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de Adinberri, la Universidad del País Vasco (UPV/EHU), FIARK Arquitectos y la asociación Asmu-be. El equipo CAVIAR de la UPV/EHU ha liderado el diseño, fruto de un proceso de cocreación con la ciudadanía y socios europeos.

Barrendain se convertirá en un modelo urbano inclusivo que fomentará las relaciones sociales y el bienestar de las personas, especialmente de las mayores, dentro del marco del proyecto europeo Kale Lagun.



URRIA
2025

BEASAINDIK

03

barrendain

Lanen hasiera:
2026ko urtarila

Iraupena:
6 hilabete

Aurrekontua:
1,56 milioi euro

Azalera: 5.500 m²

Helburu nagusia: nahi ez den bakardadea arintzea eta harreman sozialak indartzea

Parte-hartzaileak: Beasaingo Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia-Adinberri, EHU (CAVIAR taldea), FIARK Arquitectos eta Asmube

Beasain, nahi ez den bakardadearen aurka

Barrendain, nahi ez den bakardadea arintzeko espreski diseinatutako Europako lehen plaza

Beasaingo Udalak eta EHU, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Adinberri bultzatuta, Kale Lagun proiektuaren barruan kokatutako berrurbanizazioa 2026an hasiko da.

Beasaingo Barrendain plaza ongizatea, autonomia eta gizarte-harremanak sustatzeko hiri-espazio eredu bihurtuko da. Udalak gidatutako proiektua Kale Lagun ekimenaren baitan garatu da, nahi ez den bakardadea arintzea helburu duena. Lanak 2026ko urtarilean hasiko dira: 5.500 metro koadroko azalera izango dute, sei hilabeteko iraupena eta 1,56 milioi euroko aurrekontua.

Proiektuan Beasaingo Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia (Adinberri Fundazioaren bidez), Euskal Herriko Unibertsitatea, FIARK Ar-

quitectos eta Asmube elkarteak aritu dira elkarlanean. Diseinua Caviar EHUko arkitektura eskolako ikerketa taldeak moldatu du, herritarren eta Europako hainbat bazkideren parte-hartzearekin. Espazio berriak harreman sozialak, irisgarritasuna eta belaunaldien arteko elkarbizitza sustatuko ditu, ongizatearen eta komunitatearen mesedetan.

Barrendain hiri-eredu inklusibo bihurtuko da, harreman sozialak eta pertsonen ongizatea sustatzeko, bereziki adinekoena, Kale Lagun proiektu europarraren baitan.

★ Barrendain 2026an berrituko da, nahi ez den bakardadea arintzea helburu izango duen Europako lehen plaza bihurtuz: 5.500m²-ko azalera, sei hilabeteko lanak eta 1,56 milioi euroko inbertsioa.

ALEA
#44

Labeetako hondar-beroa Antzizar kiroldegiko energia beharretarako

*Beasainek Gipuzkoako
lehen District Heating
publiko-pribatua
abiarazi du*

Beasaingo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak eta Fundiciones del Estanda enpresak lankidetzan, District Heating izeneko sistema berritzailea inauguratu zuten. Proiektuak Fundiciones Estanda enpresako labeen hondar-beroa aprobetxatzen du Antzizar kiroldegia berotzeko eta ur beroa hornitzeko, %54ko energia-aurrezpena lortuz eta urtean 43 tona CO₂ gutxituz, ingurumen-inpaktu txikiagoa bermatuz.

District Heating sistema zentralizatu bat da, bero-energia hodi sare

baten bidez iturri bakar batetik hainbat eraikinetara banatzen duena. Horri esker, energia-eraginkortasuna hobetzen da eta emisio kutsatzaileak murrizten dira.

Sareak 504 metroko hodiak ditu eta urtean 5.000 ordu baino gehiago ematen ditu lanean, konplexuaren behar termiko gehienak estaliz. 958.811 euroko finantzazioarekin (Foru Aldundia, Udala eta Europako EGEF funtsak), sistema "Gipuzkoa Energia 2050" estrategian baitan integratzen da eta tokiko

jasangarritasunarekiko konpromisoa indartzen du.

Ekitaldia urriaren 16an egin zen, eta bertan izan ziren José Ignacio Asensio Jasangarritasuneko diputatua, Adur Ugartemendia Beasaingo alkateordea eta Fundiciones Estandako Ainhoa Aspiazu jasangarritasunerako arduraduna eta Iñigo Zarauz zuzendari nagusia. Guztiek azpimarratu zuten proiektuaren berrikuntza eta Beasaingo konpromisoa energia jasangarriaren aldeko apustuan.



★ Beasaingo Udalarentzat egitasmo honek bere helburu estrategikoekin bat egiten du: energia berri-eragileak sustatzea, udal eraikinen autokontsumoa bultzatuz eta ingurumenaren zaintza bermatuz

District Heating edo hiri-berokuntza sistema ezarri da...

Se ha implantado el sistema District Heating o calefacción urbana...





El calor residual de los hornos al servicio de la energía del polideportivo Antzizar

*Beasain marca un hito con el primer
District Heating público-privado de Gipuzkoa*

El Ayuntamiento de Beasain y el Departamento de Sostenibilidad de la Diputación de Gipuzkoa junto con Fundiciones del Estanda han inaugurado el primer sistema District Heating público-privado del territorio. El proyecto aprovecha el calor residual de los hornos de Fundiciones Estanda para climatizar el polideportivo Antzizar,

logrando un 54% de ahorro energético y reduciendo 43 toneladas de CO₂ al año.

La red, con 504 metros de tuberías, funciona más de 5.000 horas anuales, cubriendo gran parte de las necesidades térmicas del complejo. Financiado con 958.811 euros (Diputación, Ayuntamiento y fondos europeos EGEF), el sistema se integra en la estrategia "Gipuzkoa Energía 2050" y refuerza el compromiso local con la sostenibilidad.

El acto se celebró el 16 de octubre, y contó con la presencia de José Ignacio Asensio, diputado de Sostenibilidad; Adur Ugartemendi, teniente de alcalde de Beasain; Ainhoa Aspiazu responsable de sostenibilidad e Iñigo Zarauz Director general de Fundiciones Estanda. Todos destacaron la innovación del proyecto y el compromiso de Beasain con la apuesta por la energía sostenible.



GAS KONTSUMOA
CONSUMO DE GAS

-54%



ISURPENAK
EMISIONES

-43.000kg



AURREZPENA
AHORRO

+66.000€

★ URTEKO DATUAK / DATOS ANUALES



Bero beharra
Demanda de calor



Hondar-beroa
Calor excedente

... fundizioko hondar-beroa
kiroldegira garraiatzeko.

... para transportar el calor residual
de la fundición al polideportivo

**Ezagutu
proiektua bideo-
animazioan**

Descubre el
proyecto en el
video-animación



Bueltan da "Azoka eta elikadura osasuntsua" egitasmoa



Vuelve el programa "Mercado y alimentación saludable"

El Ayuntamiento de Beasain, en colaboración con los centros escolares y Osakidetza, ha puesto en marcha el programa "Mercado y alimentación saludable", que promueve hábitos alimentarios sanos y el valor del producto local.

El alumnado de 6º de Primaria participará en talleres y desayunos saludables dirigidos por profesionales de Osakidetza y la Asociación Contra el Cáncer, entre octubre y diciembre, en los centros Andramendi, Alkartasuna-Lizeoa, La Salle y Murumendi.

El proyecto, integrado en la Agenda Escolar 2030, se centrará este curso en el Objetivo de Desarrollo Sostenible 12 (producción y consumo responsables) e incluirá visitas al mercado y a caseríos locales para conocer de cerca la labor de los productores.

Con esta iniciativa, el Ayuntamiento refuerza su compromiso con la salud, la educación y la economía local, fomentando desde edades tempranas el consumo de productos de proximidad y los hábitos de vida saludables.

Beasaingo Udalak ingurumenarekiko konpromisoa berretsi du azokan, Beasaingo Udalak, herriko ikastetxeekin eta Osakidetzarekin elkarlanean, berriz ere abiarazi du "Azoka eta elikadura osasuntsua" egitasmoa, ikasleen artean elikadura osasungarriaren garrantzia eta bertako azokaren balioa sustatzeko helburuarekin.

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek Osakidetzako erizain eta pediatrek eta Minbiziaren Aurkako Elkarteko psikologoaren gidaritzapean, tailerretan eta gosari osasungarrietan parte hartuko dute. Jarduerak urriaren erdialdetik abenduaren erdialdera egingo dira Andramendi, Alkartasuna-Lizeoa, La Salle eta Murumendi ikastetxeetan.

Gainera, ikasleek azokara eta tokiko ekoizleen baserrietara bisitak egingo dituzte, tokiko produktuen ekoizpen-prozesua bertatik bertara ezagutzeko.

Egitasmoa Eskola Agenda 2030ren programaren baitan kokatzen da, eta aurtien 12. Garapen Jasangarriko Helburua (ekoizpen eta kontsumo arduratsua) landuko dute. Udalak, hezkuntza-komunitatearekin batera, osasuna eta tokiko ekonomia uztartzen jarraitzen du, bertako eta garaiko produktuen kontsumoa bultzatuz eta azokaren irudia sendotuz.





Kale argiteria LED sistemara aldatzen jarraitzen du Udalak

Udalak kale-argiteria jasangarriago baterantz aldatzen jarraitzen du. LED sistemara aldatzeko fase berriari ia amaiera eman dio, eta Ezkiaga auzoa, Bista-Alai, Erauskin, Fleming, Martina Maiz, Igartetxe eta Andra Mari kaleetako 206 argi-unitate ordezkatu dira.

Kontsumoa %70ean murriztuko dela aurreikusten da, urtean 65.000 kWh aurrezteko. Inbertsioa, 169.800€-koa izan da eta 7 urtetan amortizatuko da, proiektua ikuspegi energetikotik zein ekonomikotik errentagarri bihurtuz.

El Ayuntamiento avanza en la sustitución del alumbrado público por el sistema LED

El Ayuntamiento continúa sustituyendo el alumbrado público por uno más sostenible. Ya ha completado una nueva fase de transición al sistema LED, reemplazando 206 unidades de iluminación en los barrios de Ezkiaga, Bista-Alai y las calles Erauskin, Fleming, Martina Maiz, Igartetxe y Andra Mari.

El consumo se reducirá en un 70 %, ahorrando unos 65.000 kWh al año. La inversión, que ha sido de 169.800 €, se amortizará en 7 años, haciendo que el proyecto sea rentable tanto energética como económicamente.

Beasain promueve el valor del euskera y defiende las lenguas minoritarias

El Ayuntamiento de Beasain ha recibido a 18 activistas lingüísticos de 14 países, participantes en el programa ADITU de la asociación Garabide. El 5,32% del presupuesto se destina a este fin, incluyendo cooperación internacional.

Beasain ha compartido la experiencia de revitalización del euskera con activistas de lenguas minorizadas de América Latina, África y Australia, como el quechua, mapuzugun, guaraní, amazigh o lenguas aborígenes.

La colaboración entre el Ayuntamiento y Garabide continua desde 2017. En 2024 destinó una cuarta parte del 1% del presupuesto municipal a proyectos de revitalización lingüística. El encuentro refuerza el valor de la diversidad lingüística y la solidaridad internacional.

Euskararen balioa mundura eramanez, Beasain hizkuntza gutxituen babesle




Beasaingo Udalak harrera egin die Garabide elkartearen ADITU programaren bitartez Euskal Herrira etorritako 14 herrialdeetako 18 hizkuntza aktibistari. Beasaingo Udalaren aurrekontuaren %5,32 hizkuntza-politikako jardueretara bideratzen da.

Parte-hartzaileak Hego Amerika, Afrika eta Australiako komunitate indigenetako ordezkariak dira, hala nola ketxua, mapuzugun, guarani, amazigh eta aborígen hizkuntzen defendatzaileak.

Beasaingo Udalak eta Garabidek 2017az geroztik dihardute elkarlanean, eta 2024an udal aurrekontuaren kooperaziorako %1aren laurdena erabili da hizkuntza gutxituen proiektuak babesteko. Topaketak hizkuntza aniztasunaren garrantzia eta elkartasunaren indarra berresten ditu.

Desfibriladoreen erabilerari eta lehen sorospenei buruzko ikastaroa



Curso de formación en primeros auxilios y uso de desfibriladores

Datak / Fechas

Azaroak 6 noviembre
Murumendi Eskola

Azaroak 18 noviembre
Udaletxeko osoko bilkuren aretoa

Azaroak 19 noviembre
Urbiberri gizarte-zentroa

Azaroak 20 noviembre
Antzizar kiroldegia

Ordutegia / Horario

17:30 – 20:30

15 plaza saio bakoitzeko
15 plazas por sesión

DOAKOA
GRATUÍTO

PRESTAKUNTZA HONEK BIZITZAK SALBATZEN DITU.

Herritar orok, bihotz-geldialdi baten aurrean lagundu dezake.

ESTA FORMACIÓN SALVA VIDAS.

Cualquier persona puede aprender a actuar ante una parada cardíaca.

“**Lehen sorospenen eta desfibriladoreen inguruko ezagutzak funtsezkoa izan daiteke egoera kritikoetan**

El conocimiento en primeros auxilios y desfibriladores puede marcar la diferencia en situaciones críticas

Izena emateko / Incripciones

Urbiberriko saioan:
zentro berean
En el propio centro

Gainerakoetan:
galdetegia bete
Formulario correspondiente



MURUMENDI



BATZAR ARETOA



ANTZIZAR



Beasaingo Udala

BEASAINGO UDALA

ZURE ONGIZATEA, GURE LEHENTASUNA
TU BIENESTAR, NUESTRA PRIORIDAD

Energia aurrezteko laguntza, beasaindarren eskura Asesoramiento energético gratuito en Beasain



Arreta zuzena eta doakoa eskainiko da



Zure energia fakturak berrikusteko eta zalantzak argitzen laguntzeko gunea.

HITZORDUA CITA
energia.goieki@goierri.eus
Telf : 843 739 988

Goieki
GOIERRIKO ENERGIAREN ERAGILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa Foru Aldundia